

# ELKAR - IZKETA MILLA ESKER!..

Rai,eskerrik asko! Esker bizienak lankide ta epaile guziori! Jator ta kemen joka dezute denok! Emen "kaxotar-teko" atal ontan jardungo ditugu geure gaiak. Ementxe lasaiki diardukegu adiskidetasunean elkar-izketan ...

Zertan doaz gure jomuga ta elburuak. Gure asmo-ametsak baño areago jo dute euskal apaiz ta prailegaien kemenadoreak. Ixillean zetorkion gure euskerari idazle talde bikaña! Erljio-mota guziak bildu gera oraintxe ekiñaldi bakar batean. Asko arritu dira gure batasunaz. Zaitegi Jaunak zigun orain gutxi "Yakin" aldizkaria eskutara zitzaion orduko: "zuek zerate gure eredu; emen gabiltz gu ezertarako batu eziñik". Denak onartu ta goraipatu dute euskal gazteon ausardi ta asmotasuna.

Iritziak saillean eldu zaizkigu! Ezin, damurik, epai danak azaldu,geiegi bait dira. Epaiak baño zoriontasunezko egiriak bidali dizkigute geientsuek. Bestek ibitzepaile zorrotzak izan ditugu,burutsuak oso. Denak epailari baño arnas-emalle. Artzekoen derizkiogunak azalduko ditugu emen. Egin dizkiguten zenbait oarkizuneei urrengo zenbakian erantzungo dizkiegu.

Urrenerako ere auxe nai genduke, adiskidetasun au. Norbera bere iritzia argi azaldu. Zer gaizki,zer ondo, zer ondu bearrean,t.a. ... Neurritz astunegi ote dan, ariñago bear ote luken...

Tamalez,baño berandutxo atera zaigu! Barka! Ezta gure izan errua. Bilbon atera degu ta zinta berezi batzuen zai ta illabetean zai egon bearra izan genuan. Alare atera da-ta ....

Urrena irarkolaz atera nai genduke. Ontarako 500 arpidedun bear genituzke. Ia irureun osatu ditugu. Zenbat eta arpidedun geiago, ainbat merkego gertatzen da aldizkaria. Arpidedun-biltze ontan Donosti'ko apaizgaiak jokatu dira kementsuenik. (40'tik gora iritxi dizkigute oraindiano!) Esker-ronik biziena guziori -Gaztañaga jatorrari bereziki!- ta jarrai ontan, euskeragatik dagiguna ezpaita alperrikako! Zuel bifalitako iritz-auziak izango ditu erantzunak. Au idazten duna aldeko dezue, baño ez beste zenbait. Ia armonirik gabe, jatorkiro jokatuz batasunera bidetik abitzen geran gazteok! Beintzab emen Arantzazu'koak ez gera irizkide. Bakoitza bere bidetik ari da. Eztit ajola aundirik arazo onek, izan ere era batera edo bestera egin'euskeraz idazti ezkerro berdin zait.

Oarkizun bat. Aldizkari au praile ta apaizgai ez diran esku askotara eltzen da. Euskaltzaindikoak, euskaltzale trebeenak jasotzen dute aldizkari au. Ez uste izan guk aldizkari au gauz osotu bat bezela ateratzen degunik. Ez orixe! Gazte gera ta ikasle! Euskaera arloan garai diranetik zer ikasi ugari ba-degu, noski. Prest ta lei bizienaz gaituzue derizkiozuten oarkizun ta bestelakoak idarokitzeko. Gure akats nabarienak-eta jakin nai genituzke.

Ta goazen elkar-izketara. Miazka dezagun astiro auzi-idazki auei darien ezta. Ia urrena ezta ozpiñ pixka-ekin naasten dezuten, gozoegi gerta ez dedin. Irakur, bada, zenbaitek bidali iritzia. Artzekoenak azalduko ditugu.

"Yakin"

